

SISIFO MAITE MINEZ

Laura Mintegi

Euskara lana

Ikaslea: S. M.
2002-2003

AURKIBIDEA

| | |
|--------------------|---|
| LAURA MINTEGI..... | 1 |
| SARRERA..... | 1 |

SÍSIFO MAITEMINEZ

| | |
|-------------------------------------|---|
| GAIA..... | 1 |
| ARGUMENTUA..... | 2 |
| EGITURAKETA..... | 2 |
| PERTSONAIK..... | 2 |
| BALIABIDEAK..... | 3 |
| GUSTUKO IZAN DITUDAN PASARTEAK..... | 3 |
| IRITZI OROKORRA | 6 |
| BIBLIOGRAFÍA | 8 |

LAURA MINTEGI

Algortan bizi da, jaiotzez Lizarrakoa den arren. Bilbon ikasi zuen euskara 17 urte zituela. Geroago Historia lizentziatura egin zuen 1978.urtean eta pixka bat aurrerago, 1990. urtean hain zuzen ere, Psikologia doktoretza. Gaur egun Bilboko Magisteritza eskolan ematen ditu klaseak. Honetaz aparte, literatur munduan hainbat lan egin ditu. Hau gutxi balitz, prentsa eta komunikabideetan kolaborazio garrantzitsuak egin ditu. Horretaz gain, “Donostiako Hiria” ipuin lehiaketa irabazi eta Azkue eta “Jon Mirande” nobela sariak eskuratu ditu. Bere lanetako batzuk:

Bai...baina ez (1986)

Legez kanpo (1991)

Nerea eta biok (1994)

SARRERA:

Narrazio honek Aneren istorioaren bidez maitemintzearen alde onak zein txarrak erakusten. Anek egun batean Mikel ezagutu eta berarekin maitemindu ondoren berarekin alde egiten du etxetik bertan senar eta semeak utzita. Baina sei urte pasa ondoren itzultzeko erabakia hartzen du. Honen ondorioz, familia eta lagunekin aurrez aurre aurkitzen da. Hauetaz aparte, ahizpa zuen Amaiaren heriotzaren oroitzapenei ere aurre egin behar die.

SISIFO MAITE MINEZ

KOKAPENA:

Istorio hau gaur egunekoa da nahiz eta gaia eta bertako gertaerak historian zehar askotan gertatu diren. Pertsonaiak Euskal Herrian egon arren, haien oroitzapenak Amerika eta beste hainbat lekutan gertatzen dira.

Gertakizunei dagokienez, ez dira batere jarraiak. Izan ere, maiz aldatzen da kontaketa denbora. Narratzailea ere aldakorra da. Batzutan orojakilea, pertsonaiekin zerikusirik ez duena eta hirugarren pertsonan idatzita dagoena eta besteetan, pertsonaiak dira narratzaile.

GAIA:

Istorio honen gai orokorra maitasuna da. Maitasuna eta maite mina, idazlearentzat bi gauza desberdin direnak.

ARGUMENTUA:

Ane, istorio honen protagonista, Jonekin ezkondata dago eta bi alaba ditu. Halako batean Mikel ezagutu eta mundua hankaz gora jartzen zaio. Dena bertan behera utzi eta berarekin alde egiten du benetako maitasuna aurkitu duelakoan. Sei urte igaro ostean, Ane bere aurreko bizitzara bueltatzea erabakitzen du. Baina ez da horren erraza. Psikologoa baten laguntza behar du bueltatzeko arrazoiaren kausa ezagutzeko. Psikologo hori Esteban da. Honek, barneko arrazoi ezkutu horiek zeintzuk diren ezagutzen ahaleginduko da eta baita lortu ere.

Anek bere senarrarengan aurkitzen ez duen zerbait ikusten du Mikelengan. Desira, Mikelekiko desira. Hala ere, denbora pasa ahala, sentimendu hori aldatuz doa haien arteko arazoak sortzen diren heinean. Gauzak horrela, beste gizon batekin erlazionatzen hasten da. Jonek eta Mikelek ematen ez dioten zerbaiten bila. Nahi gabeko haurdunaldi baten ostean bila zebilena aurkitu ez duenez etxera bueltatzea erabakitzen du.

Orduan da Estebanen sesioetara joaten hasten den unea. Aneren bizitzaren istorioa osatzen duen bitartean, bere buruaren egoera ere aztertzen du, bera eta emaztearen arteko egoera, Karmenengatik sentitzen duena...

Azkenean Anek bere barreneko sekretua “askatzen” du, bere iragan ezkutua, hain desberdin zen bere ahizparen heriotza aldrebes eta misteriotsuaren egiazko gertaera. Izan ere, Ane izan baitzen ahizpa drogaz beteriko xiringa batekin nahigabe hil egin zuena.

EGITURAKETA:

“Flash-back” antzekoak egiten ditu, iraganean gertatu zena gogoratuz pertsonaia bakoitzaren bitartez, haien kontakizunen bitartez. Liburuan zehar behin eta berriro pertsonaia aldaketa egiten da ikuspuntu ezberdinak ikusteko beta emanez.

PERTSONAIAK:

Pertsonaia garrantzitsuena Ane da. Bera da batez ere istorioaren zentroa. Baina liburua nola kontatuta eta egituratuta dagoen kontutan izanda, ez dakit oso garbi dagoen. Izan ere gai nagusia maitasuna bada, desioa, maite mina... pertsonaia guztiek dute garrantzi handia. Izan ere Karmenek, Mikelek, Estebanek, Anek , Jonek... denek dituzte maitasuna ikusteko ikuspegi desberdinak.

ANE: Maitatzeko norbait bilatzen duen arren maitasunaren sentimenduaren bila dabil. Amaiazen heriotzaren ondoren aldaketa sakona jaso zuen bere bizitzan eta markatuta gelditu zen betirako.

ESTEBAN: Aneren psikoanalista da. Ezin du inor betirako maite. Bilatzen duena hasierako txinparta da, hasierako desioa , baina gero aspertu egiten da. Karmenekin

zerbait gehiago lortzea espero du. Bere emaztea maite du baina ez dago desiorik haien artean eta hori da, hain zuzen, berak nahi duena.

AMAILA: Aneren arreba da. Bere bizitza bizi egiten zuen. Nahiko berekoa zela esango nuke.

KARMELE: Aneren laguna da. Alde egin ondoren berriz bueltatzean hain ondo ezagutzen ez duela konturatzen da. Estebanek bezala, berak ere ez daki ziur zer den maitasunari eskatzen diona, bikoteari. Ez du pertsona batekin egon nahi, gizonak lagun moduan ikusten ditu bakarrik.

BALIABIDEAK:

Narratzailea orojakilea da eta hirugarren pertsonan kontatuta dago, baina sarritan, pertsonaien kontaktak sartzen ditu. Pertsonaien eta narratzaile orojakilearen arteko ezberdintasuna nabaria da. Izan ere, pertsonaien pentsamenduak kurtsibaz idatzita daude.

GUSTUKO IZAN DITUDAN PASARTEAK

1.- *“Maitasuna zer den jakin nahi duzu? Nik esango dizut zer den: estreinako presioa bularrean, eztarria ihartuta eta bihotza taupadaka sentitzea; begirada galdua puntu batean tinkotzea; norberaren bizitza hiru lerroko poema batek islatzen duela ikustea; bizirik zaudela jakin eta bizi nahi ez izatea; barne-mina, hainbesterainoko mina izan zitekeenik ere sumatuko ez zenuela. Maitasuna malenkonkia da, tristezia eta algara batera, pasioa, ziurtasun eza, sugarra, karentzia eta soberakina; inoiz baino niago izan eta aldi berean norberaren buruarekiko arrotz sentitzea. Maitasunak aurreko bat eta ondorengo bat ezarri zuen nire bizitzan” (9. or.)*

Izan ere maitasuna guztia da eta ezer ez. Kontraesana dirudien arren horrela da eta inork ez du honen kontra ezer botako. Apustu egingo nuke askok baino gehiagok liburua hasi eta lehenengo paragrafo hau irakurtzean bere bizitzaren pasarteak gogoratu dituela. Hori izan da niri gertatu zaidana. Egia da maitasuna ezagutzeak aldatu egiten zaituela. Mundua egun batetik bestera aldatu dela iruditzen zaizu. Lehen berdea zena orain berdeago da, atzo polita zena gaur ederra. Begi ninietan distira nabaritu zaizu, galkorra den distira. Izan ere, hasperen batean desagertu daiteke distira hori inork nahi ez izan arren. Maitasuna horrelakoa da. Batzutan nahiz eta min egin ez da desagertzen eta beste batzuetan, berriz, bat-batean lurrundu eta ihes egiten du gure bihotzetik.

2.- *“...Gerora konturatu zen maitasunaren irudia ez dela lerro bakarrekoa, ez dela ziklo lineal bat, jaio, hazi, ahuldu eta hiltzen dena. Maitasuna txirikordatu da, zuri-beltza, aurreikustezina, korapiloz betea.” (11. or.)*

Honek aurrekoari buruz nuen iritzia indartzen du. Maitasuna ez da edozein formula matematiko bezain zehatza. Eguraldia bezain aldakorra da. Egun batean guztiz maitemindurik egon zaitezke eta hara noiz eta hurrengo egunean beste norbait ezagutu edo askatasun falta nabari eta bikotea uzten duzun. Horrelakoa da, tamalez.

- 3.- *“ Maitasuna suabea eta bortitza izan daitekeela esan dio Estebanek Karmeleri, eta esan dio gero, profesional gisa, subjektuak ez duela maitasunezko objektua maite. Maitasuna bera baizik. Maiteminduak amodioa maite du lehenengo, eta gero objektu maitatua.... ” (27. or.)*

Pasarte honek asko pentsarazi dit. Inoiz ez nuen pentsatu horrelakorik. Orain, bueltak eman ondoren, zentzua ikusten diot. Gizakia berez berekoa da eta beraz, nahi duen gauza bakarra pozik izatea da. Maitasunak horretarako beta ematen dio. Hortxe dago koska, maitasunak, ez maitaleak. Poztu egiten gaituena maitatuak izatea da. Hala ere, nahi dugun pertsonak maitatzea nahi dugu. Beraz, ez dago hain argi maitasuna edo maitasuna nahi dugunak eskaintzea den lortu nahi duguna.

- 4.- *“ Horrelaxe, premura berberaz maite nahi luke Marian, eta nahi luke beste larrurik ez bilatu emaztearena baino, baina nahi dena ez da maitatzen, desiratzen dena baizik, maitasuna ez baita borondate kontua, sentimendu kontua baizik. Ezin baita maite maitatu nahi dena, are gutxiago maitatu behar dena. Maitatu beharra absurdua da. ” (45. or.)*

Erraz aspertu egiten gara, batzuk besteak baino arinago, eta aldaketak behar ditugu gure bizitzan. Aldaketa horiek arropa, ilea edo koloniarekin zerikusia dutenean ez dago arazorik. Baina gauzak aldatu egiten dira pertsonen sentimenduez ari garenean. Ez da batere erraza “zutaz aspertu egin naiz “ esatea eta gure bizitzako liburuko orriari buelta ematea.

- 5.- *“Estebanek bere kolkorako gogoratu du zenbat emakume pasatu den bere kontsultatik antzeko arazoa dutela. Min gehien ematen dion gizon-mota aukeratzen duten emakumeak dira, fatalitateak jotako panpina grekoak halakoak; gizon-mota berezi batek erakarrira sentitzen diren emakume galtzaileak izaten dira, bikotekidea aldatu arren gizon-eredua aldatzen ez dakitenak. Eta min handia emango diela jakin arren, maitemindu egiten diren bakoitzean, horrelako gizon bat egoten da beti beraien bizitzan, erremediorik gabe. ” (58. or.)*

Maitatzen den gizona ezin da aukeratu. Maitasuna bera da maitalea aukeratzen duena. Gure inkontzienteki egiten du lana eta guk gutxi egin dezakegu. Egia da gizon-eredu bat jarraitzen dela. Arraroa da eredu hori aldatzea eta gertatzekotan gure bizitzako aldaketa garrantzitsu batengatik izan ohi da. Nahiz eta min egin hor ari gar “jo ta ke irabazi arte”.

6.- “ *Helduen arteko maitasunean elementu gehiegi dago. Egia esateko, nagusitan maitemintzea dramatiko da, tragedia bat. Burugabe jokatzen du maiteminduak, baina bizitzak esperientzia nahikoa eman dio dagoeneko, eta badaki gauzak ez direla horrela. Pertsona helduak bizitza-egitura egina du, eta latza da ikustea ez duela lekurik bere maitearen bizitza-egituran, soberan dagoela alegia, eranskin gisa agertzen dela, horrezkero osatuta dagoen eraikuntzan. Min ematen du horrek.*” (59. or.)

Izutu egin nau pasarte honek. Oso dramatikoki azaltzen du nagusien maitzateko era. Hala ere, ez zait iruditzen gazteona baino maitasun korapilatsuagoa denik. Guk, esperientzia gutxiago dugu. Beraz, nagusientzat arazo txikiak izan daitezkeenak guretzat haienak bezain buru hauskorak dira.

7.- “ *Denak ez dira, ez zarete berdinak, ados. Baina gauza batean, behintzat, antzekoak zarete. Gizonezkoek nekez jartzen dute maitasuna lehen postuan beren balore-eskalan. Beti dute zerbait lehenago maitasuna baino. Lagun batek esaten zidan bezala, gizonak nekez hiltzen dira maitasunez; lokartu egiten dira lehenago.*” (66. or.)

Ez nago batere ados honekin. Hori topiko hutsa da. Gezurra da gizonak hain “arrak” direnik. Nire ustez, sentimenduak errazago ezkututzen dituzte guk ikusteko moduan ditugun bitartean. Badaude emakumeak beste garrantzi ematen diotenak eta gizonezkoek bezain ondo ezkututzen duten emakumeak ere.

8.- “ *...Deus ez du ulertuko, eta gainera...begiitsuak ez du negarrik egiten.*” (68. or.)

Nork ez du noizbait esaldi hau entzun? Betiko gauza da, gizakiak garela bezain betikoa. Hori dela eta, sentimenduak ditugu, desira sentitzen dugu. Baina gizakiak bezala, bere bertute zehatzagoa dugu, arrazoimena. Sentimenduak eraginda bizi egiten dena esaldi hori behin baino gehiagotan pentsatu izan du. Arrazoimena erabili duenak aldiz, etika jarraituz ez du erabili behar izan.

9.- “ *Pavesek dionez, gure ahultasuna agerian jarrita, hori ez duelarik besteak erabiliko bere indarra areagotzeko, orduan senti gaitzke maitaturik zentzu sakonenean. Maitasunak, berez, ezer gutxi gehiago eskain baitezake adiskidetasunarekin alderatuta. Maitasunak hasierako ilusioa eskain dezake, tximista, pasioa, amodio basatia; baina hori guztia amaitutakoan, zer gelditzen da? Babesa, laguntza, konfiantza, ulermena, hau da, adiskidetasun onak eman dezakeen gauza bera. Beraz, zorientzua izan bedi maitasuna adiskidetasun bihurtzen asmatzen duena, eta gizagaixoa asmatzen ez dakiena!*” (97. or.)

Pasarte hau barru-barrutiraino sartu zait. Iraun dezakeen maitasun bakarra adiskidetasunean oinarria duena da. Ez dago buelta gehiago ematerik. Beste “maitasunak” ez dira benetakoak, denboraldi baterakoak baizik. Adiskidetasuna mundua den guztiaren artean garrantzitsuena da, maitasuna bera baino. Izan ere, ez dago adiskidetasunik gabeko maitasunik.

IRITZI OROKORRA

Lehendabizi, liburu hau zergatik aukeratu nuen azaldu behar dut. Gazteon artean maitasun sentimendu berria da eta jakin-mina asetzeko irakurtzea baino modu hobea ez dago. Liburuak nituen ideiak aldatu egin dizkit eta maitasunaren beste ikuspuntu bat argi eta garbi islatu dit. Nabaria da egilea emakumea dela. Alde batetik pertsonaia emakumea ere delako. Beste alde batetik, sentimendu gehienak emakumeenak dira eta nork jakin, beharbada bere gertakizun batean oinarritutakoak

Maitasuna maite minez egotea da. Hori da liburuaren mamia. Maitasuna ez izateak edo sentitzeak tristura dakar. Maitasuna ez da dituen oroitzapen honetaz gogoratzen uzten duen zapore mingotsagatik baizik. Izan ere, maitasuna desagertzean sentitzen dena maiteminduta zaudenekoa baino hamaika aldiz bortitzagoa da. Maitemintzea tentelen ekintzatzat hatzen dute askok eta askok. Hori horrela izanda guztiok gara tentelak.

Maitasunaren bilaketan gure desioa asetzen duen norbaitekin topo egiten dugu. Guztiz bete egiten gaituen sentsazioak bat batean alde egin eta zulo beltz eta sakon baten aurrean aurkitzen dugu geure burua, bakarrik, hutsik, bizirik jarraitzeko nahirik gabe... Baina bihotza haustear dugula iruditzen zaigunean, hara non eta beste desira batek mugituta gure gaixotasuna sendatu egiten den. Bizitza horrelakoxea da. Ez dago buelta gehiagorik. Ziklo ezegonkor hori gelditzea erabakitzen dugunean (teorikoki gutxienez) familia bat osatzen hasten gara.

Maitasuna arazoz beterik dago. Protagonistaren kasuan bezala buruhauste ugari dakartza. Askotan galdetu egiten diogu geure buruari erantzun gabeko inkognitak. Merezi ote du maitemintzeak? Sentitzen dudana benetan maitasuna ote da? Ez al dut inoiz aurkituko betirako maitatuko dudana gizonik? Denbora pasa ahala erantzunak aurkituz goaz eta nahiz eta horrela maitasuna sakonago ulertzen dugula uste izan, ez da horrela. Maitasuna zenbat eta gehiago ulertu, gero eta korapilatsuagoa da.

Beste alde batetik maitasunaren zentzu zabalaz hitz egitea gustatuko litzaidake. Azken boladan maitasunean pentsatzen eman dut denbora. Nire inguruko pertsonak bost talde ezberdinetan banatu ditut. Irizpide bezala maitasuna eta desira banatu ditut. Alde batetik maitatu bakarrik egiten ditudan neska-mutilak daude, hots, nire lagunak. Bestetik, desiratu egiten ditudan mutilak, gau ero batentzako hautagai izango liratekeenak. Gero maitatu eta desiratzen ditudanen taldea dago, haien artean nire mutil-laguna. Azkenik ez maite ez desiratzen ditudanak, bestelakoak. Horrelakoa da nire erlazio-eremu barruan daudenen sailkapena. Pertsonala, ezta?

Bukatzeko, gaiaren eta izenburuaren bitarteko lotura paregabeari buruz hitz egin behar dut ezinbestez. Izan ere, idazleak Sisiforen mitoarekin parekatzen baitu maitasuna. Sísifo amorruz bete, lapurra eta ankerra zelako egin zen ezaguna. Zeusi iruzurra egiteagatik, harritzar bat mendi baten tontorreraino eramatera zigortu zuten, baina iristear zegoen aldi oro, nekeak jota, beheara erortzen zitzaion haitza, berriz ere gora eraman behar zuelarik. Laurak maitasunarekin konparatzen du mito hau. Maitemintzen dena, nahiz eta min ematen dioten, nahiz eta ondo ez bada ateratzen, behin eta berriro maitemintzen da, behin eta berriro ekiten dio harria igotzeari.

BIBLIOGRAFÍA

Sisifo maite minez, Laura Mintegi. Txalaparta.
Lur Hiztegi Entziklopedikoa, Askoren artean. Lur.